

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak eta ANEL-ek LHko ikastetxeetan gizarte ekintzailtza sustatzeko hitzarmena berri dute

Garatzen ari diren elkarlana ekintzailtza bultzatzeko sistematizatutako konpromezuan indartu da eta aurten beste hiru ikastetxek parte hartu dute

Asteartea, 2019.eko otsailak 12

Sistematizatutako ekintzekin ikasle eta irakasleen artean ekintzailtza sustatzea da [2017-2020 Nafarroako Lanbide Heziketako Plan Estrategikoko](#) helburu nagusietariko bat. Horri jarraituz, Roberto Pérez Elortza, Hezkuntzako zuzendari orokorra eta Nafarroako Gizarte Ekonomia Enpresen (ANEL) elkarteko zuzendariak, Ignacio Ugalde Barberiak, Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan ekintzailtza lantzeko hitzarmena berri dute. Pasaden urtean pilotatzea egin zuten hiru ikastetxeei orain Lizarrako Ikastetxe Politeknikoa, Burlatako LHI eta Virgen del Camino LHI gehitu zaizkie.



Roberto Pérez zuzendari orokorra ANELeko ordezkariekin.

Gizarte Ekonomiaren sustapena Hezkuntza departamentuko Lanbide Heziketako saila eta ANEL Nafarroako Lanbide Heziketako hiru ikastetxeetan eredu moduan (Elizondo Lanbide Eskola IIP, Cuatrocientos LH eta Burlata LH) garatzen ari diren ekimena da. Bertan 10 ekintzailtza proposamenen enpresa plana garatzen dihardute 50 bat ikaslek. Proiektu guztien artean, gainera, hiru forгатzen dira modo errealean ANELeko Ekintzaileen Kooperatibaren bitartez.

Ereduzko esperientzia hau FEDERek eta Nafarroako Gobernuak finantzatutako POCTEFA programaren baitan garatu da, ETESS Proiektuaren bitartez. Emaizak "oso onak" izan dira eta horrek ekintzailtza irakasteko metodologia bat zehazteko aukera eman du, gainontzeko Lanbide Heziketako ikastetxeetara helarazi den metodologia izanik.

ANEL Nafarroako Gizarte Ekonomiako enpresak biltzen dituen elkarte da eta era horretako ekonomia sustatzea du xede. Hain zuzen ere, Hezkuntzak Gizarte Ekonomiako elkarlan proiektuak sustatu nahi ditu INTERREG POCTEFA ETESS proiektuaren baitan. Gainera, 2017-2020

Nafarroako Gizarte Ekonomiako Plan Estrategikoak Gizarte Ekonomiako ekintzailatza bultzatzeko ekintzak zehazten ditu eta gazteak lan munduan hasteko aukerak erraztuz. Plan horrek Hezkuntza departamentuaren kolaborazioa jasotzen du Gizarte Ekonomia ezagutzera eman eta eredu hori zabaltzeko. Hala, Departamentuaren eta ANELen arteko lana modu naturalean eman da eta gaurko hitzarmenarekin indartuta geratu da.

Berritutako akordioaren konpromezuak

Hitzarmen honen bitartez ANELek Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleei Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko formazioa eskainiko die. Gainera Ekintzaileen Kooperatibaren bitartez frogatu daitezkeen proiektuak hautatuko ditu. Bestalde, eta helburu hori lortzeko asmoz, Hezkuntza departamentuak beharrezkoak diren bitartekoak eskainiko ditu ondoren egingo diren ekintzen jarraipena eta ebaluazioa eginez.